

**ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTU TURISTIKOAK ETA OROTARAKOAK.
2020KO URRIA**

Euskal AEn 2020ko urrian itxitako establezimendu turistikoen kopurua guztizkoaren % 23,2raino igo da, irailean baino 8 puntu gehiago

Sarrerak eta gaualdiak % 60 baino gehiago jaitsi dira establezimendu turistikoen guztizkoan, eta apur bat gutxiago apartamentu turistikoen kasuan, bai sarreretan (-% 51,4), bai, batez ere, gaualdietan (-% 29,0)

2020ko **urrian**, establezimendu turistiko hartzaileen % 23,2 itxita egon dira hileko egun guztietan, Eustatek landutako datuen arabera. Gainera, sarrerek eta gaualdiak % 62,7 eta % 61,7 egin dute behera, hurrenez hurren, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Lurraldeka, Bizkaian izan da urte arteko jaitsierarik handiena urrian, % 68,2koa sarreretan eta % 64,6koa gaualdietan, 2019ko urrian baino. Gipuzkoan % 59,1 jaitsi dira sarrerak eta % 62,1 gaualdiak. Araba izan da urte arteko konparazioan atzerapen txikienak izan dituen lurraldea, sarrerak % 54,3 jaitsi baitira, eta gaualdiak % 49,7.

Sarrerak eta gaualdiak Euskal AEko hotel, landa ostatu eta apartamentu turistikoetan. 2020ko Urria

	Sarrerak		Gaualdiak	
	2020/10	m/m-12 (%)	2020/10	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	119.120	-62,7	242.733	-61,7
Araba/Álava	19.038	-54,3	41.466	-49,7
Bizkaia	47.437	-68,2	102.496	-64,6
Gipuzkoa	52.645	-59,1	98.770	-62,1

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Gutziz itxitako establezimenduen kopuruaren hazkundera orokorra izan da lurraldeetan

Urriko egun guztietan itxitako establezimenduen ehunekoa (% 23,2) 2019ko urrian izandakoa (% 8,4) baino askoz handiagoa izan da, baita aurreko hilekoa (2020ko iraila) baino askoz handiagoa ere, orduan establezimenduen % 15,1 guztiz itxita egon baitziren. Hilabete osoan jarduerarik gabeko establezimenduen kopuruaren hazkundera lurralde guztietan gertatu da: Gipuzkoan igaro da irailean jarduerarik gabeko % 13,5 izatetik urrian % 21,6 izatera; Bizkaian, irailean % 16 izatetik urrian % 24,1 izatera; eta, azkenik, Araban jarduerarik gabeko establezimenduen kopurua irailean % 17,7 izatetik urrian % 25,9 izatera igaro da.

Itxita mantendu diren ostatu turistikoak (%). COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019
Urria	23,2	8,4	25,9	7,0	24,1	8,0	21,6	9,1
Iraila	15,1	6,2	17,7	7,6	16,0	6,2	13,5	5,6
Abuztua	14,7	6,3	17,2	7,1	14,9	5,7	13,6	6,4
Uztaila	17,7	6,4	20,7	7,1	18,3	5,7	16,1	6,7
Ekaina	36,4	7,9	36,0	7,6	35,7	7,5	37,0	8,2
Maiatza	65,0	8,7	69,0	8,6	62,5	7,8	65,2	9,4
Apirila	90,5	8,0	92,6	9,1	87,8	6,5	91,6	8,6
Martxoa	17,8	13,0	15,8	11,7	18,2	11,5	18,2	14,5

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Urrian jarduerarik izan duten establezimenduei doakienez, nabarmentzekoa da eskainitako plazen arabera okupazio-mailak behera egin duela: 2019ko urrian % 53,3koa izan zen, eta aurtengo urrian, berriz, % 23,3koa, ehuneko 30 puntu gutxiago. Batez besteko egonaldia apur bat luzatu da aurreko urteko urriaren aldean: 1,98 egunetik 2,04 egunera.

Euskal AEko establezimendu hartzaile turistikoetan batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2020ko Urria

	Batez besteko egonaldia			Plazakako betetze maila		
	m	m-12	m/m-12	m	m-12	p.p.*
EUSKAL AE	2,04	1,98	2,9	23,3	53,3	30,0
Araba/Álava	2,18	1,98	10,0	25,0	42,6	17,6
Bizkaia	2,16	1,94	11,2	22,7	54,8	32,1
Gipuzkoa	1,88	2,02	-7,3	23,2	56,1	32,9

m/m-12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak % 51,4 jaitsi dira, eta gualdiak % 29,0

Apartamentu turistikoei dagokienez, **2020ko urrian** 3.910 sarrera eta 18.779 gualdi izan dira, hurrenez hurren. Zifra horien arabera, 2019ko urriaren aldean % 51,4 jaitsi dira sarrerak, eta % 29,0 gualdiak. Beherakada nabarmena izan da atzerriko jatorriko pertsonen artean: 2020ko urrian sarrerak aurreko urteko urrian baino % 77,1 gutxiago izan dira, eta % 45,5 gutxiago gualdiak.

Lurraldekako bilakaera ez da uniforme izan. Araban % 22,7 jaitsi dira sarrerak, eta gualdiak % 11,3, 2019ko urriaren aldean; Bizkaian urte artean % 50,6 eta % 27,3 jaitsi dira, hurrenez hurren; eta, azkenik, Gipuzkoan % 60,8 eta % 43,8 jaitsi dira.

Sarrerak, gaualdiak eta batez besteko egonaldia Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2020ko Urria

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2020/10	m/m-12 (%)	2020/10	m/m-12 (%)	2020/10	2019/10
EUSKAL AE	3.910	-51,4	18.779	-29,0	4,80	3,29
Estatukoak	3.303	-38,8	14.254	-21,5	4,31	3,36
Atzeritarrak	607	-77,1	4.525	-45,5	7,46	3,13
ARABA/ÁLAVA	689	-22,7	5.994	-11,3	8,70	7,59
Estatukoak	662	-19,4	5.294	-8,5	8,00	7,05
Atzeritarrak	27	-61,1	700	-28,2	25,52	13,84
BIZKAIA	2.015	-50,6	7.550	-27,3	3,75	2,55
Estatukoak	1.768	-34,8	5.069	-21,6	2,87	2,39
Atzeritarrak	247	-81,9	2.481	-36,6	10,04	2,86
GIPUZKOA	1.206	-60,8	5.234	-43,8	4,34	3,02
Estatukoak	874	-53,1	3.891	-34,0	4,45	3,16
Atzeritarrak	332	-72,6	1.344	-60,6	4,04	2,81

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 4,80 egunekoa izan da 2020ko urrian, 2019ko urriko 3,29 eguneko batez besteko egonaldia gaindituz. Lurraldeka, Araba nabarmentzen da batez besteko egonaldi luzeenarekin, 8,70 egunera iritsita 2020ko urrian (7,59 egunekoa izan zen 2019ko urrian). Ondoren, Gipuzkoa dago, 4,34 eguneko batez besteko egonaldiarekin (3,02 egun aurreko urteko hilabete berean), eta, azkenik, Bizkaia, non batez besteko egonaldia 3,75 egunekoa izan den urrian, 2019ko urriko 2,55 eguneko egonaldia baino pixka bat handiagoa.

Oharra. Eustatek inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eskerrak eman nahi dizkie egindako ahaleginagatik, nahiz eta gaur egungo egoera ezohikoa izan. Haiei esker, COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurriek sektorean izan dituzten ondorioak kuantifikatzeko aukera ematen duen informazio hau zabaldu ahal izan da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf.: 945 01 75 62